

Zumaiako herri aldizkaria

1999ko otsaila

BALEIKE

200 pta.

54. zenb.



● Guascor-ek
26.000
milioiko
kontratua

● Sagardo
tenporadaren
ingurukoak

● Argazki
zaharren
liburua kalean

● Gaurko erlijioso gazteak



"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazio zentrua

Aita Mari poligonoa, 3. blokea. Tel. 943 86 16 91

Z U M A I A



MEDIKUNTZA OROKORRA

Rosa Azkue doktorea

KIRURGIA OROKORRA

Juan Ignacio Alberdi doktorea

ERREHABILITAZIOA

Maria Etxaniz doktorea

FISIOTERAPIA ETA

INDARBERRITZE FUNTZIONALA Inma Cabanillas anderea

KIROL MASAJEA ETA TERAPEUTIKOA

KIROL ETA ARIKETA

FISIKORAKO MEDIKUNTZA

J.M. Gonzalez Aramendi doktorea

- Kirol gaitasuna neurtzeko azterketak
- Esfortzu frogak
- Kirolerako balorazio eta segimendu medikoa

Abenduan milaka eguzki...
... otsailean milaka ordu

Lanordu bat akordioaren alde

Otsailean ere, eutsi egizu zure konpromisoari



euskarari



Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

BALEIKE
KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Antxoka Agirre
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esti Esteibar

Ane Osa
Esther Aizpurua
Esther Martinez
Joseba Ossa

Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Juan Luis
Romatet, Miriam
Romatet, Jon Manzi-
sidor, Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Javier Navarro

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,
Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri
Ilargi eta konpainia

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

ETB1ek, "Bai gaztelerari

Erne: Gaztelerak zirrikitu txiki bat aurkitu du munduan euskaraz egiten den telebista kate bakarrean. Oraingo, pitzadura bat baino ez da, baina lehenbailehen estali beharrekoa. Nondik sartu zaigu ba Cervantesen sagutxoa? Kiroletatik, noski. EITBk lehen katea kirol-katea bihurtu duen bezala -kirola jarraitzeko ez da ezinbestekoa esatariak dioena ulertzea-, orain zenbait elkarrizketa gaztelara hutsez egin daitezkeela erabaki du. Adibidez: Txapeldunen Ligan Athleticeko Arrateri, UEFAn Realeko Urangari, Euskadi-Uruguaien Hector Nuñezi... Ezbairik gabe, galdu ezineko dokumentuak, benetako primizia informati-
tiboak, mundua alda zezaketen halabeharrez jaso beharreko adierazpenak. Enfin. Eta hala balira, itzuli behintzat! Hala, Ipar Euskal Herriko ETB ikusleek ez al dute dokumentu zoragarri horiek gozatzeko eskubiderik? Erne: Pitzadura txikiak konturatu gabe amildegi bihurtzen baitira eta, herri honetan, gehiengo kontrako prozesuan gaude murgildurik. EITBk Lorito euskalduna eta Cervantesen sagutxo bihurria mantendu nahi baditu, ez ditzala kaiola berean sar. Bestela, sagutxoa arratoi bihurtu eta loritoa jango digu.



Gorka Zabaleta

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



fundazioa
fundación



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Iraganaren malenkonia

Udalak argitaratu berri duen 'Zumaia Oroituz' argazki liburuak, iragan hurbilera bidaiatzeko aukera ederra eskaini digu. Masta luzeko belaontziz betetako kaia; abere eta oinezkoak elkarrekin kaleetan zehar taldekide bailiran; aurpegi irribartsuaz despeskan ari diren emakumeak; hain aurpegi irribarretsua agertzen ez duten eskola eta elizaren inguruan sortutako taldeak; kirola, festa etab.

Imajina zirraragarriak dudarik gabe, instant batean beste herri batera garamatzatenak, ez dakigu hobe ala okerragoa, baina iraganaren eragin magikoari esker, Zumaia xarmagarri baten aurrean jartzen gaituztela esango nuke. Denborak, pintzelada misteriotso batez bustitzen ditu gauzak, hala nola, gaur egungo argazki batek sor ditzakeen sentimendu eta hunkipenak zerikusi gutxi du argazki berak hemendik urte askotara sor dezakeenarekin.

Liburua, Zumaiaren Historia kategorian sailkatzen ez bada ere, bere barnean zumaiarren hainbat istorio daramala ezin ukatu. Historia eta istorioak, biak beharrezko herriaren ezaguerarako. Denontzat interesgarri bada ere, liburuarekiko interesa, adinarekin batera gehitzen doala esango nuke. Zenbat eta urte gehiago orduan eta irrika haundiagoa. Gurasoek eta batez ere aiton-amonek atera beharko dute enborretik ezpala; haiek eman beharko diete bizitza eta mugimendua argazkiei. Igandeko bazkalondoko solasaldietan, parada aproposa dugu, nork, non eta zenbatean pisua erosi duenaz aritu ordez, argazkien inguruko istoriez jarduteko. Orain sukaldeetan beheko surik ez badago ere, amonaren inguruan mahaiaren bueltan eseri eta haren kontuak adi jarraituko ditugu. Liburua dardaraz esku artean duelarik, amonari begiak liluraturik gelditzen zaizkio argazkiei so, kontu bat bukatzeko astirik hartu gabe hurrengoarekin hasten da; hango moila, arrapaz, Hijas de Maria, Don Wenceslao eta abarrak; dena da ederra eta naturala, eta argazkien alde itsusi eta desatseginak ere atzean gelditzen dira. Gaur, inoiz ez bezala, salako telebista itzaldurik dago. Familia guztiak adi-adi begiratzen du amona, haren kontuen xehetasun guztiez jabetu nahian. Istorien kontakizuna aurrera doan heinean, amona ere hunkiturik sentitzen da, arnasa ere estutzen hasia zaio jadanik. Halako batean, orain arte isil-isilik eta adi-adi jarraitu dion bilobak esango dio: "Bai amona, iragana oso ederra da, baina etorkizuna, honen ezaguerarik ez badugu ere, are ederragoa. Orduan amonak, begirada goruntz luzatuz, poliki-poliki liburua itxi eta haren azala leunki ferekatuko du. Betaurrekoen lenteek lurrunduak dirudite.



KARMELO ARROIABE




IBON AIZPURUA (EPI)

Doinua: Loreak udan ihintza bezala

*Loreak udan ihintza bezala
sagardoa gure nahia
bakailu eta txuleta tarte
oso edari alaia,
kupelik kupel guztientzat txotx
berdin aste berdín jaia,
Sagardo Tourra egingo dugu
pasa aurretik garaia.*

*Ate handitik sartzerakoan
giro hezea eta hotz
pare bat trago edanez gero
inor ez da geratzen motz,
jende guztia jira ta bira
zalaparta ta hanka hots
guztiak adi nagusiari
noiz deiadar egingo TXOTX!!!*



7 MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES IZOTZUAK

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA

agustin

HARAKINA

Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA

Guascorek 26.000 milioiko kontratua lortu du Brasilen

Enpresako zuzendaritzak otsaileko bigarren astean egingo du balorazioa

Mila milioika pezetaz hitz egiten denean, kaleko gizakume arruntak galdu egiten gara. Zero gehiegi guretzat. Bilbo, Madril edota New Yorkeko banketxe, burtsa eta enpresa erraldoietan erabiltzen diren zifrak direla pentsatzen dugu, baina ez dago hain urrutira joan beharrik. Gure herrian bertan ere, bada milaka milioiko kontratuak egiten dituen enpresarik. Azken albiste pozgarria Oikian dagoen Guascorek eman digu. Enpresa talde honek 26.000 milioi pezetako kontratua lortu du Brasilen, bertako 13 herrirentzat argindarra sortzeko.

Brasilgo Acre Estatuko argindarra konpainiak deituriko lehiaketa da, hain zuzen ere, Guascorek irabazitakoa. Estatu honetako 13 herritan arazoak izan dituzte orain arte argindarra behar bezala jasotzeko. Hemendik aurrera, eta datozen 20 urteotan, bertan bizi diren 280.000 biztanlek Guascorek ezarriko duen sareari esker argindarra izango dute egun osoan. Guascorek argindarra



sortuko duten 82 motore egingo ditu. Proiektua burutzeko 5000 milioi pezetako inbertsioa egin beharko da, 16 hilabetetan. Proiektua Guascorek Euskal Herrian dituen lantegi ezberdinetan gauzatuko da: injinerutza lana, motoreak egitea, hauek kokatzea... dena hemendik zuzenduko da. Hori bai, behin proiektua gauzatzen denean, Guascorek Brasilen duen menpeko enpresa arduratuko da mantenimendu lanez.

Guascore, mundu osoan zabaldua

Guascore enpresak Oikian du egoitza nagusia, baina lantegi hori baino askoz

gehiago da. Euskal Herrian zenbait lantegi ditu (Gasteiz, Bilbo, adibidez), baina mundu osoan zehar zabaldua dagoela esan daiteke. Brasilen, Guascore do Brasil enpresak 400 langile ditu, eta Acrekoa ez da lortzen duten lehen kontratua. Garatzen ari diren proiektuei esker 150.000 milioiko negozioan daude murgildurik. Jadanik Brasilgo milioi bat biztanle baino gehiegok jasotzen dute argindarra Guascoreri esker. Europa, Amerika, Asia eta Afrikako 15 herrialdetan lantegi propioak ditu.

◀ GORKA ZABALETA

Eraginik izango al du Oikiako lantegian?

Horrelako kontratu batek Oikiako Guascoren eragin zuzena izango duen jakin nahi izan dugu, baina enpresako arduradunek ez dute oraindik balorazio konkreturik egin. Vicente Castillo enpresako prentsa arduradunak otsailaren erdialdean kontratu honek izango dituen ondorioen berri emango dutela esan zigun. Dena dela, ezin da ukatu albiste bikaina dela, eta lanpostu bat baino gehiago sortuko dela. Brasilen adibidez, 100 lanpostu sortzea espero da. Hemen, oraindik ez dakigu.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Gurutze Gorriaren zerbitzua mugatuta geratu da

Zumaiako Gurutze Gorriak, Gipuzkoako beste postuekin batera, ohiko zerbitzua eskaintzeari utzi dio, Eusko Jaurlaritzarekin desadostasun batzuk izan ondoren. Gobernu kanpoko



erakunde hau Larrialdiko Garraio Sarearen barne zegoen, baina urte hasieratik hau aldatu egin da.

Eusko Jaurlaritzak eta Gurutze Gorriak sinatuta zuten akordioaren arabera, azken honek 5 milioi pezeta jasotzen zituen postu bakoitzeko. Baina diru kopuru hau nahikoa ez dela eta, hoge milioira igotzeko eskatu zen. Proposamen hau ordea ez zen bere garaian kontuan hartu eta ondorioz, Gurutze Gorria etengabeko larrialdiko zerbitzu horretatik kanpo geratu da.

Kaltetuen esanetan, urtero 5 milioi pezeta jasota, ez zen ahalbidetzen gutxieneko duintasun bat eskatzen duen zerbitzu bat ematea. Mantentmenturako eta material berria eskuratzeko, diru gehiagoren beharra zutela adierazi zion Gurutze Gorriak Eusko Jaurlaritzari.

Bien arteko akordiorik ez da egon, eta probintziako beste herrietan bezalaxe,

Zumaiako postuak ez du dagoeneko larrialdiko garraio sarean bere anbulantziarekin parte hartzeko aukerarik. Orain arte zeuden objetore eta bolondresak ahal duten neurrian Gurutze Gorrian egoten jarraituko dute botikinarekin, premiazko larrialdiren bat gertatzen bada ere. San Juan Egoitzari laguntza emanez jarraituko du bertako anbulantziak eta honez gain, herriko bestelako kultur eta kirol ekitaldietan ere parte hartzen segituko du. Printzipioz, uda garaian herriko bi hondartzetan egoten diren sorosleen postuak ere mantenduko dira.

Betidanik, Zumaiako Gurutze Gorriko postua, bere kokaguneagatik, herri-tarron eta kanpotarren erreferentzia puntua izan da edozer gauzatarako. Poliki-poliki ordea zerbitzua murrizten joan da: larrialdiko medikua kendu zuten, erreskateko zerbitzua ere bai eta orain larrialdiko garraio saretik algeratu da. ◀

Sutea Mari kaleko etxebizitza batean

Joan den urtarrilaren 20an, ilunabar aldera, sutea izan zen Mari kaleko etxebizitza batean. Ke dezente ateratzen zen, usaina ere urrutitik hartzeko modukoa, eta suhiltzaileei deitu zitzaizen sua inguruko etxebizitzetara zabaldu zitekeelakoan. Suhiltzaileen hiru kamioi azaldu ziren, Anbulantzia eta Ertzainak, baina hauek iristerako auzokoek sua itzalita zeukaten inguruko taberna eta dendetatik hartu ahal izan zituzten extintoreekin.

Koltxo bat izan zen sua hartu zuena, manta batzuk ere erre ziren, eta bi-hiru gela erabat belztuta utzi zituen keak. Sua hartu zuen pisuko bizilagunak kanpoan zeuden sutea hasi zenean, eta zorionez ez zen inolako kalte pertsonalik izan.

ZALLA

Taberna - Erreteria

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407



Itzurun, 1 Tel. 143224



Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

Polikiroldegiko gimnasioan arazoak daude

Igerilekuaren eraikitze lanak direla eta, arazo bat baino gehiago sortu da polikiroldegian. Hasieratik bulego eta aldagela kopurua gutxiagotu egin zen, eta orain beste era bateko arazoak sortu dira. Gimnasioan adibidez, eguraldi txarra eta haize handia dagoen egunetan, ura sartzen da gela horretara eta bertan dauden ezin izaten dituzte behar bezala beren ariketa saioak egin.

Arazo honen arrazoia, gimasioaren gainaldean egiten ari diren eraikuntza

lanak dira. Ondorioz, euri asko eta haizea dagoenean lanengatik geratzen den zikinkeria guztia ura kalera botatzen duen hodietan geratzen da. Tapoi baten efektua egiten du eta ura gimnasioaren teilatutik filtratzen da.

Laster arazo hau gaindituta egotea espero da, egiten ari diren lanak amaitzerakoan. Bitartean polikiroldegiko langileek ahal dutenean zikinkeria kentzen saiatuko dira baina dena den, jendeari pazientzia izatea eskatzen zaio. ◀

Torreberri behera bota nahi da

Frontoi txikiaren atzealdean dagoen Torreberriko eraikuntza behera bota nahi da, adituek azaldu dutenez, erortzeko arriskuan baitago. Nahiz eta jatorrian zuen edertasuna oraindik imajinatu dezakegun, gaur egun kanpoko hormak bakarrik kontserbatzen ditu.

Dena den, orain dela aste batzuk horma horiek txukundu eta sendotzeko lanak egiten ari zirela, langileak konturatu ziren horma horiek osatzen dituzten harriak, erortzeko zorian zeudela. Horregatik, Udalak lehenbait lehen jatorrizkoak diren harriak banan-banan kendu eta beste guztiak

behera botatzea nahi du, zerbait larria gertatu baino lehen.

Era honetako lanak egiten ohituta dauden espezialista batzuek burutuko dute hau, eta harri horiek gordeta geratuko dira etorkizunean bertan altxa daitekeen eraikuntzak material hori izan dezan.

Torreberri, Manuel de Arriolak berre-raiki zuen XVII. mendearen hasieran eta eraikuntza ederra bihurtu zuen. Bere forma karratuak, lurraren desnibela gainditzen du, aurrealde edo fatxada nagusia gune horretako tokirik garaienean kokatuz. Eraikuntza, manposteriakoa da eta balkoiak aurrealdera irekitzen ziren, familiako armarrria zentratuz.

◀ **IGOR URANGA**



Oker egindakoa zuzenduz.

Urtarrileko zenbakiarekin batera banatutako 98ko urtekarian, azken orrialdean, gurean publizitatea ezarri zuten "guztien" zerrenda eman genuen argitara. Hala uste genuen behintzat! zoritxarrez, ordea, hiru izen geratu zitzaizkigun aipatzeko; hirurak tabernak, gainera: **Eguzki**, **Ihintza** eta **Justa**. Barka hutsegitea eta bide batez eskerrak hiru hauei ere eskaintzen diguten konfiantzagatik.

BALEIKEKO ADMINISTRAZIO
BATZORDEA.



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

balezulo

importaturiko eropa eta artisautza



Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA

Garraioak

GARRAIO ASTUNAK

Martxoaren 28an pasako da Korrika Zumaiaetik

Korrika kulturala
otsailaren 13an
hasiko da bertso
afariarekin

Urtarrilaren 22an AEKko lokalean egin zen aurtengo Korrika antolatzeke lehenengo batzarra. Bertan azaldu zuten, martxoaren 19an Iruñean hasi eta 28an Donostian bukatuko da "Bat eta bat hamaika. Zu eta ni euskaraz" lelopean korrituko den 11. edizio honen, ibilbideak guztira 2.259 km izango ditu eta 500.000 korrikalariaren parte-hartzea espero da. Bakarra beharrean euskalgintzako hamaika pertsona omentzea eta korrikaren testigua hartzen duen bakoitzari euskararen aldeko konpromiso konkretu bat eskatzea izango da edizio honetako berrikuntza nagusia.

Ohi denez, korrika kulturalaren egitarau kultural bat eta korrikalagun deritzon AEKren finantzaketarako



diru bilketa gauzatuko dira aurtengo edizioan ere.

Lehenengoari otsailaren 13an emango zaio hasiera Euskal Herriko herri guztietan bertso afari bana eginaz. Gero, martxoaren 13a bitartean hainbat ekitaldi kultural egingo dira. Euskararen aldeko egitarau kultural honen baitan, Zumaian otsailaren 20an Txanbela taldearen kontzertua eta 27an film laburren emanaldia eta kolokioak iragarri daitezke dagoneko, Udaletxeko Kultur Batzordeak bere gain hartu baitu euren antolaketa. Bestalde, kanpainaren antolaketarako Batzordeak ere ekintza gehiago antolatuko ditu.

Batzorde honek burutuko du, era berean, denda eta enpresaz enpresa Korrikalagunak bilatzeko lana, AEKri bere lana aurrera ateratzeko behar dituen bitartekoak lortzeko diru bilketa, alegia. Korrikako materiala ere jarriko da salgai.

Bukatzeko, aipatu martxoaren 28an pasako dela Korrikaren martxa Zumaiaetik. Igande goiza tokatzen da oraingoan, aurreko edizioetako baino ordu erosoagoa, eta antolatzaileek parte-hartze handiagoa espero dute.

Forma hartzeko oraindik nahikoa denbora badago behintzat...

◀ **ANTXOKA AGIRRE**



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051



DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI



**Erloju
eta bitxidenda**

E. Gurrutxaga plazan

**EGUZKI
PUB**



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



ekin
elekttrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Telebés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777



Herriko Lizarra-Garazi Foroa martxan.

Lizarra-Garaziko Akordioa herrian ezagutarazi eta bake prozesuaren inguruko erreflexio eta ekimenak bultzatzeko helburuarekin sortu da Foroa. HB, PNV, Zutik, ELA, LAB, Elkarri, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideakeko ordezkariekin lantalde iraunkor bat osatu dute, laupabost bilera eginak dituzte dagoeneko, eta argakia ateratzeko juntatu genituen egunean elkarlanean jarri positihoa nabaritzen zutela aipatu ziguten.

Urtarrilaren 30-31 asteburuan Lizarra-Garaziko Akordioa eskura banatzen aritu ziren kalean, Otsailaren 18rako bilera ireki bat iragarri dute, eta aurrera begira gisako beste hainbat ekimen bilduko dituen programa bat ari dira osatzen.

Zuzendaritza Batzorde berria Gizarte Zentruan

Pentsiodunek Gizarte Zentruko Zuzendaritza Batzorde berria eratzeko hauteskundeak izan dituzte urtarileko bigarren astean. Jose Luis Elosua Sanchez hautatu dute lehendakaritza eta aurreko Batzordearekiko sei kide berri dira. Lau emakumezko eta bost gizonezko izango ditu Batzorde berriak, zehazki hauexek: Itziar Arrieta, Dorotea Galparsoro, Mirentxu Izagirre, Tere Ostolaza, Luis Azkue, Luis Mari Aizpurua, Felipe Bravo, Jose Luis Elosua eta Jose Ramon Zubia.



10 milioi bildu ditu Zumaiaiko Baietz Taldeak

Urtarrilaren 30etik kalean da 'gara' egunkari berria. 'Egin' itxi zutenetik 'egingo dugu' esan eta herriz herri herriko jendeak eskaini duen ahalegin eta laguntzari esker hortxe dago eginda. Proiektu berria aurrera ateratzeko helburutzat jarri ziren 1.000 milioiak gainditu eta 1.200 milioitik gora bildu ahal izan dira. Horietatik 10 zumaiaarrak dira, herriko jendeak eman eta Zumaiaiko Baietz Taldeak bildutakoak. Zorionak 'garazale' guztioi eta disfrutatu egunkari berriarekin.



Laburrak

Hautzaindegi gela berria Maria eta Josen.

Otsailaren 4ean, Santa Ageda bezperan, hautzaindegi gela berria inaguratu zuten Maria eta Jose ikastetxean. Zinta moztu, inaguraziorako hitz batzuk esan eta luntxa egon zen ondoren.

Peña Gantxegi arkitektoak diseinatu du gela, eraikin osoa diseinatu zuen berak. Arkitekto honek sari bat jaso zuen ikastetxearen diseinugatik, eta gela berri honen diseinugatik ere beste bat merezi du. Gela superra da, Super Bat-en parke horietako baten modukoa, eta hautzaindegiko arduradunen hitzetan haurren garapenerako beharrezkoak diren ekipamendu guztiez hornitua.

Mintza-praktikak aek-n

Euskara ulertu arren hitz egiterakoan akatsak badituzu, lotsatu eta euskeraz ez hitz egitea da egin dezakezun okerrera. aek-k mintza-praktika ikastaroak antolatu ditu zeure euskara hobetu ahal dezazun. Animatu zaitetz eta izena emateko deitu ezazu 943 860248 telefonora. Euskalduntze, EGA eta irakurmen eta idazmenean trebatzeko ikastaroetan matrikulatzeko epeak ere irekita daude.

Parrokiko gazteen tonbola.

Gabonetan, abenduaren 28tik 30era Zumaiaiko Parrokiko Gazte Elkartearen Misio Taldeak Mitch-ek kaltetu zituen Erdialdeko Amerikako jendeari laguntzeko antolatu zuten tonbolan 200.000 pezeta bildu ziren. Baleikeren bidez eskerrak eman nahi dizkiete tonbola montatzen lagundu zieten eta bertara hurbildu ziren guztiei.

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Leihoaren ...ahotik

Kaixo, orriaren bestaldeko adiskide horri. Eh, baina zer... hau berria da, ezta? pentsatuko zenuen orrialde hau zabaltzean. Ba egia esan berria ez, nahiko zaharra naiz dagoeneko, zoritxarrez. Ala zorionez, ze rekonto! Bizitzeko ez al gara ba sortzen? Bizi orduan ahal den bitarte, Bonaparte!

Peru, hala dut grazia, Peru Berazadi. Grazia diot, bataioko izena gogoratze hutsak nahiko desgrazia sortzen baitit. Peru Maria Apostol. Jartzen hasita, jarri egin behar zaio izen hori ume kottauai, eh? Edozeinek esango luke erregeren baten semea naizela!. Baina ez, panaderua nuen aita, Jangoikuak guarda gixajua bere aldamenean. Ni berriz, arrantzalea naiz, beno nintzen, jada erretiratu binaute. Zea, traste zahar bat banintz bezala, hala, bazterrrera. Baina ez naute begibistatik berehalakoan galduko, abrase bisto! Ditzosozko ezker belaun honegatik ez balitz... igerri beharko zioten. Bai, izan ere, ezkerreko belauna oso ahulduta dut, eta nekez mantentzen naiz zutik. Eta zutik esan dut eta ez tente, zeren Peru, lurrera erorita ere beti ttentte. Kubako beste txapeldun hark zioen bezala, ni ere ez naute bela makurtuko, ez horixe!

Baina halere, nere ttenttean, pixkana-pixkana ari naiz erortzen. Beti gurgildun aulki honetan mugitu beharrak, eta... Ai, nire Joxpiñixi hemen balego... Emaztea nuen Joxpiñixi, Jangoikuak guarda goxogoxo bere aldamenean. Eh! baina gehiegi hurreatu gabe!. Berrogeita hamar, berrogeita hamar urte eder bizi izan genituen elkarrekin, treintaio-txoko Sanpruentzio bezpera hartatik, ixil-ixilik ezer esan gabe utzi ninduen arratsalde triste hartarainoko berrogeita hamar urte gozo.

Apirilak hogeitazazpi, bai, gogoan dut oraindik fetxa hura. Izan ere, berandu allau egin behar du bere ezkontzara kristauak, eh! Ama zanak zioen bezala, Jangoikuak guarda gaxua bere aldamenean, Berazadi, bai zai egon beharko dek, hi behintzat berandu iritsiko haiz eta seguru, Peru!

Denera berandu iritsi behar hori ere... baina kasu honetan ez, oraingoan ez dut hutsik egingo, eta hilero-hilero hementxe izango nauzu alde honetan zure zain, zu beste aldean izango zarelaikoan. Eziezaidazula leihorik itxi behintzat.

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretta, 6

Tel. 861078

“Ebanjelioa zabaltzeko modua aldatu beharra dago, eta komunitateak paper aktiboagoa hartu behar du parroko lanetan”



Bizi ditugun denboretan ez da askotan ikusten den gauza gazte bat erlijioso sartzearena, baina Zumaian hiru animatu dira kolpean. Pedro Uranga Donostiako seminarioan hasi da apaiz izateko ikasten, eta Unai Manterola eta Ion Korta Calahorran interno daude Karmeldarren monasterioan ‘postulantadoa’ deritzon probako urtea egiten. Gabonetako oporraldietako egun bat aprobetxatu genuen hirurekin San Pedro kaleko apaiz-etxearen gela batean bildu eta euren historia pixka bat ezagutzeko.

■ Nola hartu zenuten bide hau aukeratzeko erabakia?

Ion - Nere familia beti izan da erlijiosoa. Izeko monja daukat, osaba apaiza eta lehengusua misiolaria, eta hirurak pertsona gisa ere ereduagarriak iruditzen zaizkit. Batik bat oso barruan gelditu zaizkit lehengusu misiolariak txikitatik kontatzen zizkidan bere bidaletako kontuak. Gero, Monja-xarrekin gaixoei laguntzen ere aritu naiz, eta gustora sentitzen nintzen... eta probatzea erabaki dut.

Pedro - Nerea nahiko prozesu luzea izan zen. Kristau izateak pisu haundia du neure baitan, kristau bezala ze jarrera hartu behar ote dudan dezentetan galdetu izan diot neure buruari, eta Bilbon karrera bukatzen ari nintzela, apaiz sartzearen ideia atera zitzaidan. Pixkanaka-pixkanaka, asko pentsatuaz, otoitzez eta jendearekin hitz eginaz ideia sendotzen joan zen... erabakia hartu nuen arte; edo erabakiak neu hartu arte, azken finean bokazioa dei bat baita.

Unai - Denok bilatu behar izaten dugu gizartean parte hartzeko geure leku hori. Neuk behintzat majina buelta eman nizkion, eta erlijioso bezala behartsuei, gaixoei, familiei... laguntza emateko bidea izanik hori iruditut zait gizartea hobetzeko ahalegin horretan saiatzeko lekurik egokiena.

■ Zeuen erabakiaren berri izatean ze erreakzio izan zuten zeuen familiek?, eta lagunek?

P. - Etxean ondo hartu zuten, ezagutzen naute eta azken erabakia hartu aurretik ere hitz egina nuen

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



Amertze

markogintza

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707



Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

eurekin. Lagunekin, bueno, beldurra baneukan. Esan beharra neukan bestela kalean enteratuko baitziren, eta ez nuen nahi horrelakorik. Baina oso ondo hartu zuten, 'ezkontzarako badaukagu apaiza!' bota zuen batek, parre batzuk egin eta ondo. Gerora erlazioa ez da batere aldatu.

Lagunek ondo hartu zuten, "badaukagu apaiza ezkontzarako!" zioten parrez

I.- Unai eta biok interno joan gara Calahorrara, eta distantzia hori etxekoei gogorra ere egin zaie. Ni etxeko txikia naiz gainera, eta normala, kostatu egin zaie pixkat erabakia asimilatzea.

U.- Hala ere jeneralean familiak errazago ulertzen du. Ama batek beti ulertzen du semea.

Kalean ikusi ditut harridura aurpegi haundienak, ea zoratuta nagoen eta horrelakoak, baina azkenean guztiek ere errespetatu egiten dute.

I.- Agian normala da jendeari arraroa iruditzea, baina ez luke horrela izan behar. Bakoitzak konpromiso batzuk hartu behar ditu, bere bidea segi, eta horixe da geuk egiten duguna, semea

edo laguna ezkontzen denean gertatzen den bezala.

■ Zuek biok Karmeldarren ordenean sartu zarete. Zein dira ordena honen ezaugarri nagusienak?

U.- Bueno, sartu esan duzu, eta hasteko esan beharra dago gu oraindik ez garela ordenean sartu. Sartzeko botoak egin behar dira, txirotasunarena, kastitatearena eta gainekoei zor zaien obedienciaarena, eta botoak egin aurretik bi urte igarotzen dira interno proba bezala, 'postulantadoa' eta 'noviciadoa'. Gu lehenengoarekin ari gara aurtan.

■ Botoak aipatu dituzu, zeintzu dira zehazki?.

U.- Hiru daude. Lehenengoa, txirotasunarena, behartsuengana hurbiltzeko behartsu bizitzea, bigarrena, kastitatearena, famili guztietakoa izateko famili propioa ez izatea, eta hirugarrena gainekoei zor zaien obedienciaarena. Karmeldarren ezaugarri nagusia berriz, otoitza litzateke. Orden bakoitzak "karisma" bat dauka, ordenak bere egiten duen Jesusen fazeta. Frantziskotarrek adibidez Jesusen pobre bizitza egiten dute bere, Karmeldarrek berriz, hirugarrenen aldeko otoitza edo 'intercesioa' esaten zaiona eta apostolutza.

Aipatu beharra dago baita Karmeldarren monjak klausurakoak badira

ere, adibidez Zumaiko monja-xarrak, fraileak ez direla klausurakoak, jende bat horrekin nahastu egiten baita... Ondorioz, gizarte zerbitzuak ere egiten ditugu, gaixo baten etxera joan eta konpainia egin eta horrelakoak.

I.- Zornotzan ikastetxe bat daukate eta irakasle bezala ere aritzen dira batzuk, edota fraile ez ezik apaiz sartzen direnak parroki bat eramaten. Lau parroki badaude Donostian Karmeldarrek eramaten dituztenak...

Monasterioan ez gara abitua jantzita eta ixil-ixilik ibiltzen

■ Nolakoa da zeuen egun bat Calahorran?

I.- Goizean zazpitan jaiki eta zazpi t'erdietan goizeko otoitza. Irakurketa pixka bat eta eskariak egiten ditugu ordu erdiz. Gero, gosaldia eta ni eskolara joaten naiz. COU egiten ari naiz bertako herriko eskolan, eta hantxe egoten naiz ordu biak laurden gutxi arte. Bazkalaretik, beste otoitza txiki bat eta bazkalondoan telebista eta siesta.

Arratsaldea, berriz, jai dugu. Astelehenetan eta asteazkenetan ingelesa ikastera joaten gara Unai eta biok akademiara, eta gainerantzean estudiatu, organoa ikasi, herritik



KAFETEGIA GAROA JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81



GAZTE, S.L. ELEKTRIZITATEA ARGIDENDA
Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabiloi eta herriko argietan
Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402
TAILERRA: Estazioko kalea, 24 Tel. mugikorra: 908 -143409

GIZARTEKINTZA zentru soziala
KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 860959

buelta bat eman, kirol pixka bat egin... beti dago zer edo zer egiteko.

U.- Probaketarako bi urte hauek pasa ondoren seminarioarekin hasiko gara, Pedro ari denarekin. Bitartean, ikasketa erlijiosoei dagokienez, asteburuetan 'postulantadoak' deitzen zaien klase batzuk ematen dizkigute ordenaren ohitura, historia eta horrelakoen inguruan, baino ez dira ordu gutxi batzuk besterik izaten.

Nik COU aterata daukat, eta latina, greziera eta ingelesa ikasten ematen ditut ordu batzuk aste barruan.

3 Diziiplina gogorra al da? Mugarik jartzen al zaizue, parrandara ateratzeko, esate baterako?

I.- Errezoetara eta jatorduetara txintxo joan behar da, baina gainerantzean libertatea dugu. Noski, Karmeldarren bizitza lasaia da, eta ezin da bertara sartu eta gau ta egun juerga batean pasa, baina pixka bat zainduz gero parranda ere libre dugu. Neu adibidiz klaseko afarietara lasai asko joan naiz.

U.- Ez gara ibiltzen abitua jantzita eta ixil-ixilik. Nik uste jendeak imajin hori duela buruan, eta oker daude. Monasterioan bertan nahiko giro ona daukagu, abitua ez digute botoak egin arte emango eta orduan ere konpromisoetarako bakarrik jantzten da, eta diziiplina pixka bat badago, baina edozein etxetan bezala, beharrezkoa dena baino askoz gehiago ez.

3 Pedro berriz seminarioan...

P.- Bai, ni Donostian nago, eta asteburuetan etxera etortzen naiz. Hauek bezala lehenengo urtea dut neuk ere eta gustora nabil. Ikasketei dagokienez lehenengo bi urteetan



denetarik ematen dugu, teologiaren oinarriak filosofia, psikologia, soziologia, ekonomia pixka bat..., egungo munduari erantzun egoki bat emateko formazio orokor sendo bat eskuratzearren, eta hurrengo hiruretan teologia eta elizaren historian sakontzen da.

Emakumeen apaizgoa ondo iruditzen zait

3 Egunkari batean irakurri nuen Donostiako seminarioan irakasleak baino gutxiago dira ikasleak, zehazki hamabost. Ze esplikazio ematen diozue bokazioen krisi honi?

U.- Krisia ez da bokazioena bakarrik, orokorragoa da. Gizarteak aurrera egin du eta elizak ez du jakin ebanjelioa zabaltzeko era aldaketa horri egokitzen. Nire ustez honek kristautasuna ahuldu egin du, eta kristau gutxiago dagoenez bokazioak ere gutxiago dira.

P.- Niri iruditzen zait bokazioak badaudela. Adibidez parroki barruan monitore izatea bokazioa da, ezkontzea bokazioa da, herriko taldeetan sartzera ere bokazioa da. Pertsona bakoitzaren kristau izateko

era leku askotan egon daiteke. Agian geure kasuak nabarmenagoak dira, baina horiek ere kristauak dira, eta bokaziodunak.

Honekin ez dut esan nahi elizaren baitan nolabaiteko krisi bat ez dagoenik. Unaiek esaten duena egia da. Ni egon nintzen hitzaldi batean azaltzen zuten, gizartearen aldaketak fedea ulertzeko moduan ere aldaketa ekarri du. Lehen kristauak bere fedea ulertzeko zentrua arrazoiak zuen, eta gaur egun, eta batez ere gazteen artean, konpromisoa eta esperientzia. Konturatzen bagara, ebanjelizatzaileek, katekesian, astialdietan, sendotzan nahiz mezetan, bide zaharra, arrazoiarena lantzen dugu gehienbat, esplikazio, adibide eta gisako metodoekin, oraindik ez dugu lortzen metodologiak balore berriei egokitzea. Ez pentsatu jende gaztearengana hurbildu nahi ez dugunik, kontua da askotan ez dakigula nola erantzun eskatzen digutenari, eta izugarritzko buruhausteak dauzkagu honekin.

3 Zer iruditzen zaizue emakumeen apaizgoaren posibilitatea? Apaiz faltaren aurrean, adibidez, soluzio bat izan daiteke.

I.- Niri ez litzaidake gaizki irudituko lan horretarako emakumeak ere hartzea. Apaiza izateko kontzeptu batzuk jakitea da garrantzitsuena eta ez andrea edo gizona izatea. Andre batek berdin-berdin esplikatu dezake ebanjelioa.

U.- Emakumeak gu bezain kapazak dira.

P.- Arazoa konplikatua da, tradizio sartzen baita barruan, eta eliza

Gure Txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334



HORBEL
PAPER-DENDA

HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53



Ezkerretik hasita: Ion Korta, Pedro Uranga eta Unai Manterola.

katolikoak tradizioari garrantzia haundia ematen dio. Debatea badago, 'Sinodo' bat egin zen Aita Santua eta gotzai mordo batekin gaia aztertzeke, eta ez ziren akordio batera iritsi. Hala ere, zaila ikusten dut, Aita Santuak 'deposito de fe' bat, prozesu baten ondoren dogma bihur daitekeena, ezarri baitzuen egungo egoeraren jarraipenaren aldekoa.

U.- Baina zorionez, gaia ez dago itxita, eta nik uste dut etorkizunean onartu beharko dela emakumeen apaizgoa.

Elizara ez da behartuta joan behar, gauza ez da bultoa egitea

■ Erlijiosoen ezkontzarena da beste gai korapilotsu bat. Nola ikusten duzue?

U.- Fraileak ezkontzea ez dut uste posible izango denik komunitateko bizitza dezente nahastuko bailuke

honek, baina apaizena posible ikusten dut.

Eliza pixkanaka ari da modernizatzen... Karmeldarretan esaterako orain dela gutxi arte hierarkia askoz gogorragoa zen, baina orain erabakiak "hermano" guztien artean hartzen dira, demokratikoki.

P.- Emakumeen apaizgoarena, apaizen ezkontzarena... hor badago eliza eta gizartearen arteko elkarrizketa bat, eta arazo hoiei ez zaie soluzio definitiborik ematen.

■ Printzipioz behintzat XXI. mendean erlijioso izango zaituztegu. Nola ikusten duzue eliza XXI. mendean?

U.- Nik uste dut aldaketa garrantzitsuena komunitate kristauak parroketan jokatzen duen paperaren inguruan egongo dela. Orain arte laikoak alde batera utzita egon dira eta dena apaizen esku utzi da, eta hori ez zait positiboa iruditzen. Gainera,

geroz eta apaiz gutxiago dago, baina laiko konprometituak badaude, eta pixkanaka elizaren inguruko lanetan paper inportanteagoa eman behar zaie hauei. Triste da egoera larri honetara iritsi beharra laikoez gogoratzeko, baina hauen aportazioarekin hobekuntza bastante igarriko da.

I.- Arrazoa dauka. Asko ikusita nago jendea elizara behartuta joaten, eta egia esan nahiago ez joatea behartuta joatea baino. Ez daude estorbuan, baina gauza ez da bultoa egitea.

Nik esaten dut gazteek beren ideiak eman behar dituztela, etorri eta esan, nik horrela nahiko nuke izatea. Zumaiako parrokia aldatu daiteke nahi izanez gero.

P.- Nik etorkizun ona ikusten diot elizari. Nire ustez bizitza honetan derrigorrezkoa da benetako gizon eta benetako emakumeak izatea, bakoitzak bere bizitzari zentzua emateko ahaleginak egitea, eta kristautasunak horretarako bidea eskaintzen du, neri balio dit, eta jendeari balio dion bitartean hor egongo da.

Honbre, garbi utzi behar da, kristautasunarena aukera bat dela. Bakoitzak jakin behar du zer nahi duen. Beste erlijioak eta bestelako historiak ere hor daude.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**



zertaz ez zinateke mozorrotuko?




Alazne Arruti

Neska txintxoaz,
pailazoz,
"cobrador del frac".



J. Luis Aizpurua

Drag Quinez,
erori
egingo bait
nintzateke.



J. Luis Etxaniz

Monjaz,
nahiago dut
alaiagoa
den zerbaitetaz
jantzitzea.




Jesus Etxabe

Apaizez,
danak engainatzen ibiltzen
baitira, eta nik
ez det inorre
engainatu nahi.



Roman eta Asier Etxaniz

Joseba Etxeberriaz.



Inazio Mugerza

Gizonez ez,
ni beti emakumez
mozorrotzen naiz.



Aurkene Arruti

Txanogorritxu
ez zait batere
gustatzen.



Josefina Osa

Gizonezkoa banintz
emakumez,
eta emakumea banintz
gizonez.



**TXINDURRI
ITUURI**



SAGARDOLEGIA
ERAKUSKETA



Tel. 943 19 93 89 ITZIA

INBASIOA!

JAVIER VARELA



Sagardotegia, balantzaka tradizioa eta negozioaren artean

Euskal Herri hezean, betidanik herriaren kulturen erroturik egon den edaria da sagardoa. Mendetan, gure taberna gehienetan sagardoa zen errege, ardoa beraren gainetik. Baina gizarte aldaketak medio, sagardoa baserri mundura zokoratu eta ardoa nagusitu zen, gizarte berriaren ikur. Duela 25 bat urtera arte, sagardoa ez da apenas baserrietako ilunpetik atera, baina azken urteotan, bat-batean, modan jarri zaigu eta askorentzat izugarrizko negozioa bilakatu da. Tradizioa eta negozioaren arteko kulunka honetan, nolako etorkizuna dute sagardotegiek? Zer da sagardoa eta zer dira sagardotegiak? Horrelako galderak egin dizkiogu Oikian zabaldu berria den Txortena sagardotegiko Felix Larrañagari.



“Sagardoak bizitza du. Beti egiten ari da. Sagardoan bakteriak, lebadurak eta bestelako bizidunak daude, eta horiek etengabe jaten ari dira sagardotik. Horiek sagardoa ondu egiten dute, heltzen laguntzen diote, baina era berean, behin puntu hori gaindituta zeharo mintzen dute eta ezaugarri guztiak kentzen dizkiote. Sagardoa hil egiten da. Botila bat bost bat urte utziko bagenu, ez litzeteke likidorik geldituko, errautsa besterik ez”.

Sagardotegia kontzeptua gehienok Astigarraga edota Hernanirekin lotzen dugu. Dudarik ez dago inguru hori dela sagardoaren erreinua, baina ez pentsa sagardotegiak hor bakarrik daudenik. Urrutira joan gabe, Oikian bertan Txortena sagardotegia zabaldu berri du Felix Larrañagak –hilaren 5ean-. Erortzeko zorian zen baserria konpondu beharra zegoela eta, orduantxe pentsatu zuen Felixek sagardotegia jartzea: “Baserria konpondu beharra zegoen, bestela erori egingo zitzaigun. Orduan, duela pare bat urte pentsatu nuen sagardoa- rekin proba bat egitea. Iaz ere, berdin, eta aurren sagardotegia zabaltzea erabaki dugu”. Sagardotegia, betiko erakoa: “Sagardoa geuk egindakoa da, gure eta inguruko baserrietako sagarrekin. Menua tipikoa izango da, eta tente jan beharko da normalean, hala behar duelako. Sagardotegia ez da jatetxe bat. Hori bai, hona etorri baino lehen enkargatu egin behar da”.

Aurtengo sagardoa

Sagardotegi batean garrantzitsuen sagardoa da, nahiz eta batzutan kontrakoa irudit. Felixek aurren 15.000 litro sagardo egin ditu, horretarako 20.000 kilo sagar erabiliz. Aurtengo sagarra ona omen dator, poliki, baina ona: “Sagardoa urtetik urtera aldatzen da, eguraldiaren arabera, batez ere. Azken urtean euria bota du baina eguzki dezente ere izan da, eta hori ona da sagararentzat. Eguzki horri esker, sagarrak azukre gehiago du eta horrek eragingo du gero sagardoak alkohol gradu gehiago izatea. Azido gehiago ere izango ditu, eta horrek gazi puntua emango dio,... ezaugarri guztiak indartu egiten ditu eguzkiak. Eguzkirik ez badago, ezaugarri guzti horiek eskasagoak izango dira. Aurtengo sagardoa ona dator. Kolorean pixkat gorri antzekoa, baina bide onetik dator. Orain txiritik edateko bigun samarrak daude, baina hotza egin du udazkenean eta horre-

gatik sagardoa motelago ari da egiten, baina hori ona da. Bero egiten badu, hego haizea, azkarregi heltzen da eta gero pasa egiten da”.

Felixek sagardoa bizitza duen zerbait dela adierazi digu, urte gutxiren buruan jaio, heldu eta hiltzen den edaria omen da: “Sagardoak bizitza du. Beti egiten ari da. Sagardoan bakteriak, lebadurak eta bestelako bizidunak daude, eta horiek etengabe jaten ari dira sagardotik. Horiek sagardoa ondu egiten dute, heltzen laguntzen diote, baina era berean, behin puntu hori gaindituta zeharo mintzen dute eta ezaugarri guztiak kentzen dizkiote. Sagardoa hil egiten da. Botila bat bost bat urte utziko bagenu, ez litzeteki likidorik geldituko, errautsa besterik ez”.

Sagardotegiak modan

Sagardotegiak izugarritzko negozioa bilakatu dira azken urteotan. Modan daude, eta askotan zaila izaten da horri ihes egitea. Eta dirua barra-barra dagoen lekuan, iruzurra ez da aparte ibiltzen. Sagardotegiak, tolare-sagardotegiak, sagardotegi-jatetxeak, sagardoa duten jatetxeak... dena zaku berean sartu dira, eta Felixen ustez, hori ez da posible: “Sagardotegiena izugarritzko booma izan da. Gainera, gaur egun edozerri deitzen zaio sagardotegia. Batek bi barrika jartzen dituela eta sagardotegia deitzen dio, eta ez du sagarra ikusi ere egin. Negozioa izan daiteke, eta aurrera,



baina nik arrisku handia ikusten dut. Benetako sagardotegiek hiru hilabeteko jarduera izan dezakete, horixe da denboraldia, San Sebastian egunaren aurreko ostiraletik apirila bukatu arte. Orduan itxi egiten da. Badaude batzuk sagardoa urte osoan izaten dutenak, baina ez da normalena. Besteak jatetxeak dira. Benetako sagardotegiak norberak egindako sagardoa eskaini behar du. Nik negozio guztiak errespetatzen ditut, baina gauzak nahastu gabe”.

Alde nabaria izaten da, era berean, asteburutako eta astegunetako giroaren artean. Asteburuetakoak, Felixen ustez, ez du zerikusirik sagardotegiko benetako giroarekin: “Ardikumeak bezala ibiltzen dira.

Jatorri izendapena, etorkizunean ezinbestekoa

Dudarik ez da sagardoak izugarritzko arrakasta lortu duela sagardotegiei esker, baina galduko den moda izan nahi ez badu, bide luzea dute oraindik egiteko sagardogileek. Txakolinaren adibidea eman diogu Felix Larrañagari, eta bera ados azaldu da: “Txakolinak lan izugarria egin du alde horretatik. Kalitate zigilu horrek bultzada handia eman dio urte gutxitan. Sagardoak ere hortik jo behar duela uste dut, baina oraindik ez dut posible ikusten. Lehen arazoa sagarrarena da. Bertan behar adina sagar produzitzen ez den arte ezinezkoa izango da jatorri izendapena. Jadanik Aldundia jarri da lanean hori lortzeko, eta laguntzak ematen ari dira sagarrondo berriak landatzeko. Hemendik urte batzuetara lortuko dela uste dut. Gero, kalitate minimo bat ziurtatu behar da, eta gaur egun eguraldiaren menpe gaude zeharo. Uste dut hor zientziarekin aurrerapausoak eman daitezkeela. Bide hori landu behar da, ezinbestean”.

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

TSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

ileapaindegia
I Z E T A
Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingelesa . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es

Aurtengo sagardoaren dekalogo:

- 1. Alkohola:** Sei gradu inguru, sei gradu baino gehixeago.
- 2. Kolore eta zaporea:** Kolorea aurreko urteetakoa baino gorriakagoa. Zapore eta gorputz oso ona du, garraztasunaren, alkoholaren eta azukrearen arteko orekatatik. Agian mikatz puntu bat izango du.
- 3. Klimaren baldintzak:** Euri dezente egin du eta sagarrak asko handitu dira. Eguzkia ere ez da falta izan. Udazkenean hotz egin du, fresko, eta horri esker fermentazioa egokia izan da, motelagoa.
- 4. Produktzioa:** 12 milioi kilo sagar erabili dira 8,5 milioi litro sagardo egiteko.
- 5. Lehengaiak:** Erdia Frantziatik ekarri da, %30a Gipuzkoakoa izan da, eta gainontzeko %20a Galizia, Asturias eta Bizkaikoa. Bertako sagarren kalitatea oso ona izan da, baina gutxi jaso da.
- 6. Berlandaketa:** Urtean 10.000-15.000 sagarrondo landatzen dira, hemendik urte batzuetara ia dena Gipuzkoako sagarra izan dadin.
- 7. Salmenta:** Txotxean %6-8a, botiletan %80a, eta pattrarra eta ozpina egiteko %10a.
- 8. Erosleak:** Garai batean elkarte gastronomikoek erosten zuten sagardo batez ere, baina gaur egun saltoki handietan ere saltzen da. Tabernetan gero eta sagardo gehiago kontsumitzen da txikiteoan. Gero eta gazte gehiagok edaten du sagardo.
- 9. Etiketak:** Sagardo botilen %40a etiketatzen da, batez ere, supermerkatuetara eta kanpora doana. Gero eta gehiago etiketatzeko joera dago.
- 10. Banaketa:** Gipuzkoan %60a, Euskal Herriko beste herrialdeetan %30a, eta kanpoan (Madril, Valentzia, Frantzia,...) %10a.

Astegunetan ezberdina da, sagardo ezagutzen duen jendea egun horietan ibiltzen da jeneralean. Asteburukoek edozer gauza edango lukete, baita ozpina jarrita ere. Hauentzat festa bat bezala da, parrandarako aitzakia. Sagardotegi batean beharrezkoa da sagardo gustokoa izatea, bestela alperrik".

Sagarra kanpotik ekarri beharra

Aurten Gipuzkoan 12 milioi kilo sagar erabili izan dira, 8,5 milioi litro sagardo egiteko. Baina sagarraren %30a baino ez da bertakoa. Beste guztia kanpotik ekarri beharra dago: %50a Frantziatik, eta beste %20a Bizkaia, Galizia eta Asturiastik. Honek arazo batzuk sortzen ditu sagardo egiterakoan. Felixek horrela azaldu digu: "Sagardo asko egin behar denean, kanpotik ekarri beharra dago sagarra. Sagar horiek tankera ezberdinekoak izango dira, mikatzak, gezak, gaziak... esku artean zer daukazu oso ondo jakin behar duzu, eta sagardotegi handiek sagar horien ezauga-

riak aztertzen dituzte. Gero, nahasketa egin behar da, proportzio jakin batzuetan nahi den sagardo lortzeko. Ez da batere erraza, askotan sagardogileak ez dakielako zer duen esku artean, eta gero auskalo nolako sagardo ateratzen den. Guk ez dugu arazo hori. Ez dugu produktio handirik eta nahikoa izaten dugu inguruko sagarrarekin, eta hau badakigu nolako den".

Sagardoaz eta sagardotegiez hainbeste hitz egin ondoren, mama goxoa dastatzeko ordua dela erabaki du Felixek. Oraindik goiz samar da sagardoari ekiteko, are gehiago ohitura handirik ez duen honentzat. Baina azalpenen ondoren, sagardoaren kolore gorriak, usain garbi eta zapore gazi-gozoei ezin ezetz esan. Bitartean, Felixek aldamenean dituen tolaiek, prentsa, aska eta lanerako beste tresnak erakusten dizkit, sagarra nola txikitzen den, zukua nondik nora joaten den... baina hori datorren urterako utziko dugu.

◀ GORKA ZABALETA



julio curiel
Gizonezkoentzat
ileapaindegia
Erribera kalea, 23

Loredenda
JEMAR
LANDAREAK. LOREAK
HAZIAK. ZERAMIKAK
Erribera, 1 Tel. 860375

Lorriaga
Juanjo
HARATEGIA URDAITEGIA
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

San Pedro Saria pala txapelketa martxoan hasiko da

Aurtengoan nobedade
bat edo beste
izango da

*Bosgarren urtez jarraian
burutuko da Zumaian San
Pedroetako Pala Txapelketa.
Martxoan hasi eta ekainean
ospatzen diren
San Pedroetako jaiak
bitartean luzatuko da eta
urte honetan berrikuntzaren
bat edo beste egon daiteke,
izan ere antolatzekeo ardura
Udalak hartuko du.*



Oraindik ez da zehaztu partiduen egutegia, baina aurreratu daitekeena da, ostiralean eta igandean jokatzear gain, aurtun larunbat gauean pare bat ordu izango direla aurreko bi egun horietan jokatu ezin dutenentzat. Dena den, hau horrela izateko ondo arazoitu beharko da eta astero finkatuko den eguna baino lehenago egin beharko da eskaera; hau gertatu ezean eta finkatutako egun eta ordu horretatik pasata egiten bada eskakizuna, berau ez da kontuan hartuko. Honela, aldaketa asko egitea ekidin nahi da, txapelketako parte-hartzaile eta jarraitzaileen mesedetan.

Polikiroldegian izen ematea

Pala txapelketa honetan parte hartu nahi dutenek polikiroldegira jo dezakete informazio gehiagoren bila eta bertan ere eman daiteke izena. Iaz txapelketa interesgarria jokatu zen eta bigarren urtez, Oikiako Arratibel anaiek beren maisutasuna erakutsi zuten.

1998ko txapelketan gainera, 97an ez bezala, hiru anaiek bikote ezberdina

izan zuten, baina hala ere hauetako bat, Joseba Arratibel txapeldun suertatu zen Xabier Iruretaren laguntzarekin. Imanolek, beste anaietako batek berriz, hirugarren postua eskuratu zuen. Gogoan izan, 1997an Jabier eta Imanol Arratibel izan zirela jaun eta jabe.

San Pedrin txapelketan, iaz Unanue aita-semeak izan ziren irabazleak eta emakumezkoetan berriz, Aizarnazabalgo Gabarain ahizpek Ana Egaña eta Marijo Aizpurua osatutako bikote zumaiaarra gailendu zuten final gogor batean. Jokalari onenaren sariei dagokienez, gizonezkoetan Joseba Arratibelek jaso zuen eta emakumeetan Olatz Gabarainek.

Azken bi edizioetan Ostolaza anaiak finalean izan ditugu baina ez dute txapela janztea lortu. Aurtengoan ikusi egin behar zein bikote aurkezten diren eta ikusmin handia sortuko da jakiteko ia norbaitek apurtzen duen Arratibel anaien nagusitasuna.

Beraz, ekaina amaiera arte palak protagonismo handia hartuko du herrian. ◀ **IGOR URANGA**




taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Tel. 143379



* Eguneroko bazkaria
* Pintxo eta bokatak
* Koadrilentzako menu bereziak
* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517



Zumaiako Kros Herrikoia martxoaren 7an burutuko da

Hilabete baino gutxiago falta da Zumaiako Kros Herrikoirako. Aurtengoa, hamabosgarren edizioa izango da eta berrikuntza bat edo beste izango ditu korritu beharreko ibilbideari dagokionez.

Horrela, emakumeek bi lasterketa egiteko aukera dute: alde batetik ohikoa den 5.800 metrotako zirkuitua burutzeaz gain, gizonetako bezalaxe, 10.200 metroko ibilbidea egiteko aukera izango dute. Emakumezko asko kexatu da, zergatik ez zuten gizonetako bezalako lasterketa egiten eta honi erantzun bat eman nahian, aukera hori eskaini nahi da.

Zirkuitu bat egin nahi duenak kolore bateko dortsala eramango du eta

bestea osatu nahi duenak beste kolore batekoa. Gizonetakoek berriz, luzera bakarra korritu beharko dute baina ibilbidea aldatu egingo da aurreko urtekoarekin alderatuta.

Orain dela urte batzuetakoa errekupe-ratuko da, hots, polikiroldegi parean hasi eta bertan amaitu. Aurreko bi urteetan, Amaia plaza inguruan izan du hasiera, herri erdian izatean, giro gehiago egoteko asmoz. Baina antolazailen esanetan, polikiroldegian

hasiera eta amaiera izanez gauzak asko erraztuko dira antolaketa lanetan.

Lasterketak goizeko 9.30etan hasiko dira txikienekin eta helduen karrera nagusia berriz, ordubete beranduago hasiko da. Izena emateko epea zabalik dago polikiroldegian (943-862021); 800 pezeta ordaindu beharko da eta lasterketa egunean apuntatuz gero berriz, 1.200 pezeta. ◀

Hiru Ezkur taldea bere nagusitasuna azaltzen ari da

Poliki-poliki gauzak argituz doaz Zumaiako plaiaroetako txapelketan. Ligan, Hiru Ezkur eta Ederki Herri Biltokia taldeak dira orain arte ondoen dabilzanak eta horrela jarraituz gero, ez dirudi arazo haundirik izango dutenik finalerdietako txartela eskuratzeko.

Beste taldeen artean, Ekin Elektrizitate Buitrakerrek eta Txikixa Pub-ek dituzte aukera gutxien sailkatzeko, baina oraindik jardunaldi batzuk geratzen dira bigarren fase hau amaitzeko eta ikusi egin behar azkenean zertan geratzen den. Gainontzeko taldeek ere (Trapaia Taberna eta Basterrikalde) oraindik zeresan handia dute.

Basterrikalde taldearengandik batez ere zerbait gehiago espero zitekeen bigarren fase honetan; oraindik ordea, bere benetako maila erakusteko partiduak geratzen zaizkio. Txapelketako lehenengo zatian talde hau azaldu zen indartsuen.

Kopan berriz, espero zena gertatzen ari da. Xolskaer eta Axier Kirolak taldeak ligaxka honetako talde gogorrenak dira, baina bi hauekin batera Kabi Taberna ere sasoi betean azaltzen ari da. Aurreko urteetan, aipatutako lehenengo bi taldeak Ligako txapelketa irabazteko hautagaiak izan ohi ziren, baina aurtengoan multzo gogor batean egokitu eta Kopa jokatu beharrean aurkitu dira.

Honako partidu hauek falta dira oraindik jokatzeko bigarren fase honetan: Ligan, Ederki Herri Biltokia-Txikixa Pub; Trapaia Taberna-Hiru Ezkur; Ederki Herri Biltokia-Basterrikalde; Hiru Ezkur-Ederki Herri Biltokia; Basterrikalde-Ekin Elektrizitate Buitraker eta Trapaia Taberna-Txikixa Pub.

Kopan berriz, Bar Restaurante Basarri-Ipurbeltz Gaztañaga; Kabi Taberna-Xolskaer eta Inpernupe-Axier Kirolak

◀ IGOR URANGA

Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

KUKUTZ
serigrafia

paperezko poltsak dauzkagu dendarientzat
zure diseinuarekin koloretan

Baltasar Etxabe, 7 Tel. 943 86 05 69

AIZPURUA
LIBURUEN DENDA

opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569

Kalekume baten jaiotza

Datorren martxoaren batean jaiotza berri bat izango dugu Zumaiako kaleetan. Hirugarrena izango da bere anai-arreben artean, eta bere aurrekoek landutako etorki-zunean bide bat irekitzen saiatuko da.

Bere anai-arreba zaharragoak dagoeneko bere kontura bizi dira, apal eta zoriontsu, eta ez dago dudarik beharrezkoa izango duen edozertan lagungarri izango zaiola euren esperientzia.

Familiakide berri hau makal eta indarrik gabe jaioko da. Gure kale familian ahalik eta ondoen moldatzeko denok lagundu beharko diogu. Bai jana emanez, bai defendituaz eta baita gure bizitzaren barne onartzen ere.

–Ez dadila umezurtz gelditu!– egin zigun oihu, bere mokotik zintzilik zekarren zikoinak.

Zerura luzatu genituen gure begiradak, zikoin hark mokotik zintzilik zekarrena asmatu nahian. Zikoina hurbildu ahala kolore naranjadun zerbait nabaritzen hasi ginen, eta halaxe zen, edukiontzi laranja bat zeraman bere mokotik zintzilik.

Zikoinak lur hartu zuen gure alboan, oso nekatua zirudien, ia ezin zuen hitz egin, eta arnasa osatu arte, mokoan zekarren edukiontziari begira gelditu



ginen guztiok. Edukiontzi berri-berri bat zen, jaioberri bat, beldurrez ginen gure arnasaz minduko ote genuen. Zikoinaz ahaztu ginenean, bere ahots sakonak zera esan zigun:

–Bai, bai, begiratu ezazue ongi. Otsailaren 20rako mordoxka bat ekarri behar ditut Zumaiara.

Denok harrituta gelditu ginen eta 10 segundoko isilunearen ondoren, gure

taldekide batek hain ahul ez egoteko zer egin behar genuen galdetu zion zikoinari, eta zikoinak zera esan zion:

– Ez dadila janik gabe gelditu, eta horretan guztiok lagundu beharra duzue. Urola Kostako Udal Elkartean 102 jarriko dira, beraz azkar eta ongi antolatu behar duzue laguntza. Ontziak jaten ditut batik bat, eta ontzi hauek plastikozkoak, metalezkoak eta tetra-brik erakoak izan daitezke. Emaiezue honen berri zuen senide, lagun eta ezagunei, martxoaren batetik aurrera gure kalean edukiontzi berri baten jaiotza dugula, eta hau ospatzeko ontzi mota ezberdin hauek hartu eta edozein edukiontzirekin alboan bilduko garela festa handi batekin ospatzeko.

Zikoinak bere edukiontzi txiki eta berria hartu eta bere hegaldia jarraitu zuen, eta gu guztiok berria zabaltzeari ekin diogu:

“Martxoaren batean edukiontzi berri bat jaioko zaigu”.

◀ **ARAZI**



Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Loitz

* Eskola eta
bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



Tel. 143278



MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAS
- ANTENAS
 . Banakakoak
 . Kolektiboak
 . Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

NOLAKO EUSKAL HERRIA NAHI DUZU?



ESKOLAN HIZKUNTZAREN EZAGOTEA ERAKUSTEN DA, GIZARTEAN ERABILERA.
(ZUMAIAKO IKASTETXEETAN % 96 EUSKARAZ IKASTEN ARI DA, GAINONTZEKO % 4-AK EUSKARA IKASGAIA DU.)



ZER DA GARRANTSITSUAGOA IRITZIA ALA JOKABIDEA? ZERTARAKO BALIO DU HIZKUNTZA BAKOITZAK?
(BILATU ENTZIKLOPEDIA ON BATEAN "DIGLOSIA" ETA HORREN KONTRAKOA: "NORMALIZAZIOA")



ZURE ERANTZUNKIZUNA ERE BADELA USTE BADUZU, ZATOEZ "HIZKUNTZA ETA GIZARTEA" IKASTAROTXORA. GAI HONEKIKO SENTSIBILITATEA DUEN ZUMAIAK GUZTIENTZAT DA.

OTSAILAREN 20 ETA 27 (ZAPATUAK) 10:00-14:00, IZENEMATEA FORONDA 443861056

ZER DA BARREGARRIAGOA, EUSKARAZ GAIZKI ALA ERDARAZ GAIZKI EGITEA? ZERGATIK?
(*BITARTEAN, AZKEN 30 URTEOTAKO GATAZKA POLITIKOAN 834 HILDAKO, 576 PRESO... AMONAREN KONPLEXUA ALDATU DA?)

otsaila

IKASTAROK

•Txuri-beltzeko oinarritzko ikastaroa.

Matrikula 5.000 pta.

► Otsailaren 17tik, martxoaren 31ra.

Asteazkenetan 18:30etatik 20etara.

•Soziolinguistika.

Matrikula 1000 pta (epea otsailaren 17a arte). Egunak aldatu dira:

► Otsailaren 20an eta 27an.

•Inauteriak 99-argazki onenak:

jaietako irudi onenak jasoko dituzten argazkiak aukeratu nahi dira. Hiru sari emango dira:

- Banakako argazki onenari
- Taldeko argazki onenari.
- Kaleko jaigiroa azaltzen duen argazki onenari.

Informazioa kultur etxean.

Lanak aurkezteko epea:

► Otsailaren 26a

ESKI IRTEERA KANDANCHURA

Izenematea polikiroldegian (Otsailaren 19a bitartean). Langabezia diren gazteentzat laguntza berezia.

► Otsailaren 27-28 asteburua.

TXANBELA TALDEAREN KANTALDIA

Korrika kulturalaren barne.

► Otsailaren 20an.

Oxford aretoan

MENDI ASTEA

Mendiko diapositiba emanaldiak

► Otsailaren 22tik 27ra, arratsaldeko 7etan.

Forondan

ZINE FORUM

"Estación central de Brasil"

► Otsailaren 25ean, gaueko 10:15etan.

Aita Mari zinean

EUSKAL ZINEMAREN TOPAKETA

Hiru film labur: "Laugarren galeriatik", "Txotx" eta "Bernar".

Jarraian mahaingurua, (Korrika kulturalaren barne).

► Otsailaren 27an.

Oxford aretoan

ANTZERKIA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren aitzakian, Vaiven teatroaren "La coraje" antzezlan, (gaztelaraz).

► Martxoaren 5ean.

Aita Mari zinean

INAUTERIAK 99

• Otsailak 12, ostirala:

Arratsaldeko 4etan Eusebio Gurrutxaga plazan, haurrentzat festa **Telmah** taldearekin: musika, dantza, jokoak, pailasoak...

• Otsailak 13, larunbata:

Arratsaldeko 4etan Odieta pilotalekuan, haur festa: jokuak, dantza eta magia ikuskizuna **Txan Haundia** magoarekin. 6etatik 9etara eta 10etatik 11etara, **Tximeletak txarangaren** ekitaldia. 7:30etan kofradian, **Bandaren kontzertua**.

Gaueko 11etan hasita, Eusebio Gurrutxaga plazan **Basakabi** taldearekin dantzaldia.

• Otsailak 14, igandea:

Arratsaldeko 5etan plazan eta inguruetan, **Hortisaurios**, haurrentzat kaleko animazioa

6etatik 9etara **Tximeletak txarangarekin** kalejira.

• Otsailak 15, astelehena:

Arratsaldeko 4:30etan Odieta pilotalekuan **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoak

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera,

16.00 - 20.00

- Liburuak, aldizkariak, egunkariak... Urtariletik aurrera OPAC sistemaren bidez kontsulta errazagoa.

- Egin zaitez liburutegiko bazkide. Mailegu zerbitzuaz baliatzeko bazkidetza behin-betikoa izaten da. Karneta: 800 pezta.

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19.30

- Internet txartela: urte osorako bazkidetza: 1000 pezeta.

ARGAZKI LABORATEGIA

Txuri-beltzeko argazki laborategia.

Forondan

LUDOTEKA

Haurren txokoa.

► Asteazkenetik ostiralera, 5 - 7:30

► larunbatetan, 3 - 6

Tel: 943 14 32 64

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

ILE APAINDEGIA



Etkezarreta, 19 Tel. 862342



ILANO

Paperdenda LIBURUDENDA
Aldizkariak
Fotokopiak Baltasar Etxabe, 7
Enkuadernazioak Tel. 143191

ZINE FORUM



Otsailak 25, osteguna
Estacion central de Brasil
(Central do Brasil, 1998)

Zuz: Walter Salles

Akt: Fernanda Montenegro,
Marília Pêra

Aldez aurretik ohartxo bat: hasiera batean filme hau urtarri-laren 14ean eskaini behar zen, baina Madrileko banatzaileak eginiko faenaren ondoren (azken momentuan hemen pantailaratu behar zen kopia Sevillara bidali zuten), emanaldiaren data aldatu behar izan zen. Oraingo honetan badirudi kontratazioa finkatuta dagoela eta ez dela eskusartze arrarorik izango.

Film honi buruz zer esan... ba Brasilek Oscar-etarako aurkeztu duen filmea dela, eta saria irabazteko aukera haundiarekin gainera, 1998ko Berlineko zinemaldian filme onenaren saria jaso zuela, Donostian ere pare bat sari jaso zituela, eta urteko balantze denetan filme onenen artean agertzen dela. *Central do Brasil*-ek zer eskaintzen digu? Filme honek kalean bizi diren eta idazten ez dakiten haurrentzat gutunak idazten dituen (nahiz eta gero hauek ez bidali) irakasle ohi baten eta bere guraso bila dabilen haur baten arteko harremana kontatzen du. Brasilgo kaleetako bizitza gogorra eta kupidagabea ere ikusten da. *Central do Brasil* melodrama gogorra eta sentibera da, eta amerikar zine guztia estatubatuarra ez dela erakusten duena.

Bestetik, datozen saioak zein izango diren oraindik ere guztiz finkatu gabe daude. Ostarrenako kideek programatu nahi dituzten filmeen artean Atom Egoyan kanadiarraren *El dulce porvenir* drama gogorra, arrakasta haundia izan duen Robert Guediguian frantziarraren *Marius y Jeanette* bikaina, momentu honetan zinezale askoren ahotan dagoen *Happiness* izugarria, Michael Haneke austriarraren *Funny Games* beldurgarria eta Cannes-eko zinemaldian garaile izan zen "La eternidad, un día" aurki genitzake. Gusto denentzako aukera alajaina.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Hautsa eta maitemina

Oroituz

Opor eleberria

Bidaia sentimental

Frantzia eta Italian zehar

Piraten historiak

Joan Mari Irigoien

Jon Arretxe

Charles Dickens

Laurence Sterne

Defoe, Salgari, Melville...



Gaztelerez

El año de la muerte de Ricardo Reis

Arenas de Arabia

La noche del pecado

Mala índole

Irse de casa


Jose Saramago

Wilfred Thesiger

Tahar Ben Jolloun

Javier Marías

Carmen Martin Gaité



Haurrak/Gaztetxoak

Ibai, zer izan nahi duzu handitan?

Izar baten gainean

Ni eta nire kontuak

Kontaidazu eguzkiaren berri

Kutun kutuna

Jeanne Willis/Mary Rees

Antton Kazabon

Amado Gomez Ugarte

Angel Esteban

Pello Esnal



KONCE

JOXE
MANUEL

Kupoi batzuk
erosi eta ...

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

ZUMAIA

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!



Argazki zaharren liburua salgai

“Zumaia Oroituz” argazki zaharren liburua aurreko hilaren 22an aurkeztu zen Aita Mari aretoan. Zumaiaren 650. urteurrena zela eta ateratzen den bigarren liburua da hau, aurretik “Zumaiar Historia” liburua atera baitzen.

Liburuaren egileak Javier Carballo argazkilaria eta Ismael Manterola

unibertsitateko irakaslea izan dira. Lehenak argitaratu behar ziren 300 argazkiak aukeratu zituen. Horretarako hainbat instituzio, fototeka eta familiak utzitako murgildu da, 1000 irudi inguru, eta onenak, kuriosoenak edo adierazgarrienak aukeratu ditu. Ondoren Ismael Manterolak argazkia ze garaitako edo zer adierazten duen aztertu eta argazki oinak idazteari ekin zion. Hori dela eta, liburua zortzi zati edo arlotan banatuta dago: paisajeak, kaia, txokoak, lana, gertaerak, erlijioa, jaia eta kirolak, eta zumaiairrak. Argazki zaharrena 1870 urte ingurukoa da eta 1960. urte bitarteko bizitza edo txokoak erakusten dizkigu.

Rikardo Peñak sarreran idazten duen bezala, liburu honek jadanik ahaztuta dagoen Zumaia zaharrena itxura, oraindik jendearen gogoan dauden

pertsonak eta gaur egunekoarekin zerikusirik ez duen bizimodu bat erakusten du. Gazte eta helduentzat liburu egokia izan liteke. Gazteontzat milaka istorio eta kontakizunetan entzun dugun herri baten irudi bat edukitzeko. Helduentzat, aldiz, beraien gaztaroa gogoratzeko.

“Zumaia Oroituz” Foronda kultur etxean dago salgai 2500 pezetaren truke. Mugi zaitezte agian etxerako libururik gabe geratu zarete eta.



Kartel lehiaketako irabazlea Silvia Solas zumaiaarra izan da. Guztira lehiaketan 16 artistak hartu dute parte, eta epaimahaikoek adierazi digutenez, oso maila ona erakutsi dute partaideek.

Luis Llavori Argazki-bidez 98an irabazle

Luis Llavori zumaiaarra aurreko urtean zehar jokatu den “Argazki-bidez” izeneko argazki-rallien zirkuituko irabazlea izan da. Lehiaketa hau Gipuzkoa eta Bizkaiko sei herritan zehar (Arrasate, Eibar, Zaldibar, Ermua, Bergara eta Soralue) jokatzeko da eta Euskal Herri guztiko argazkilariek hartzen dute parte. Aurtengo honetan Luis Llavorik 100 puntu lortu

ditu eta bigarren gelditu diren bi argazkilariei 16 puntuko diferentzia atera die. Kontuan hartzekoa da lehen postutan beste zumaia bat ere sailkatu zela, irabazlearen anaia den Juan Ramon Llavori, alajaina. Badirudi argazkilarien familia baten aurrean gaudela, hirugarren anaia bat ere, Jose Mari Llavori, argazkigintzan aditua baita.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

BELARDENDA SIWA
Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA
Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

Nikol Enea
TABERNA

Amaiako plaza


Tel. 861440

INMOBILIARIA



BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323



R.E.M. berriz ere gorantz

Aurreko urte bukaeran R.E.M. musika talde estatubatuarrek "Up" izeneko diskoa kaleratu zuen. Berrikuntza batzuk somatu daitezke gainera. Alde batetik taldea bateriajerik gabe geratu da. Osasun arazoak zituela eta, hasiera-hasieratik taldekide zen Bill Berry-k taldea utzi zuen. Hori dela eta taldeak bateriajerle berri bat kontratazeari uko egin eta erritmo kajekin lan egiteari ekin zion. Horrek hainbat aldaketa batzuk ekarri ditu: ia ez dira kitarrarik entzuten, teklatuak dira orain taldearen alde melodikoa daramatenak. Honek ez du esan nahi technoa edo musika elektronikoa egiten hasi direla; betiko pop-rock-folk musika egiten jarraitzen dute, baina orain askoz ere freskoagoa da, ez azken diskotan entzuten genuen rock mazakote hura. Hau beste gauza bat da. Hala ere disketxeok ez ziren asko fidatuko diskoan dagoen kanta komertzial bakarra, eta orain 8 urteko R.E.M.ekin zerikusia duen kanta bakarra esango nuke nik, hartu baitute irrati eta telebistetan promozioa egiteko.

Promozioan gastatu duten dirua kalean somatzen al da? Ba ez dut uste, ze jakina da irratietan zer entzun moda berak ekartzen duela, eta R.E.M. zoritxarrez (edo zorionez) ez daude modan. Ze, ea, zuetako nork entzun du taberna batean edo talde honen disko berria... Inon ez, ezta? Ba konparatu orain 7-8 urte ze lata eman zuten "Out of time" diskoko "Losing my religion" kantarekin. Kanta zoragarria zen, diskoa bezalaxe, baina nahitaez egunean 157 aldiz entzuten baduzu benetan nazka hartzen diozu. Gainera urteetan zehar taldearen jarraitzailea izan bazara (1987ko

"Document" diskotik), disko guztiak erosi badituzu, altxorrek bezala gorde badituzu... musikaren ideia putarik ez duten hainbat eta hainbat "40 inuzente"-en entzule zure talde maite-enaren jarraitzaile sutsuak bihurtzen direla ikustea, betiko rem-en ordeztar-i-em ahoskatu beharra, disko denda batean Alejandro Sanz-en kamiseta bat daraman pijo bat "ar-i-em"-en disko berria eskatzen ikusten duzunean, ba hori... taldeari mania hartzen diozu, nahiz eta jakin taldearen errua ez dela, irrati eta telebisten kulpak dela, moda kontu bat besterik ez dela. Hortikan azken diskoak ez erostera, moda bat ez jarraitzera eta berriz ere gutxiengo batek bakarrik ezagutzen dituen taldeak entzutera pauso bat besterik ez dago. Elitista batzuk garela? Ziur aski. Hala ere jende aurrean aurpegi elitista hori erakusten badugu ere, barruan R.E.M.-ekiko maitasun hori mantentzen dugu.

Orain taldea berriz gorantz doanean, 1992ko "Automatic for the people" maisu lan hartatik egin duten diskorik onena atera dutenean, modan ez daudenean, mediak inongo kasurik egiten ez dienean, betitikan Athens, Georgiako taldearen jarraitzailea izan naizela aitortzeak ez dit batere lotsarik ematen. R.E.M. azken 20 urteetan Estatu Batuetan (eta Mundu guztian) sortu den talderik onenetakoa baita, Sonic Youth taldearekin batera (fama handia izan duen beste talde bat) iparramerikar musika aldatu duen taldea izan baita, eta... ze letxe, orain ez baitaude modan. Snob hutsak besterik ez gara.

◀ I.TOWER

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK 929-55 05 74 telefonoan

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

fidatzeko baimen guztiak





kai komertziala

Ia ehun urte ditu argazki honek, eta bertan dioen bezala 'Muelle comercial' delako bat genuen gaur ontziak lotuta egoten diren toki berean. Idi-gurdia erabiltzen zuten zamak batetik bestera eramateko, gaur kamioiak beharko luketen tokian, baina badirudi argazkian jai-eguna dugula, edo gutxienez bazkaltzeko garaia. On egin!



TXAPARTEGI GOZOTEGIAK emandako azken tarta **Ainhoa Leturiondorentzat** izan da. Berak zioen bezala Jonny zen Eibarko aldizkarian agertzen zen pailasoa.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! ea tarta goxoa nork eramaten duen!!!



Zein dira argazkiko tiroles guapeton hauek?

Asmatzen duzuenon artean **Txapartegi** gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, otsailaren 22a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 0 34 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Bakorazioak



Artadi auzoa
Tel. 862189



zein: Aitor Sarasketa

Nola: Txoske

Noiztik zara Txoske?

Uffff, aspalditik. Bosgarren mailan edo eskolan jarri zidaten izena da, 10-11 urtetatik.

Zein da zure edari maiteena?

Dudarik gabe esnea. Ezin dut alkoholik edan, eta ura eta esnea edaten ditut litroka.

Tabernariaren lana sikologoarena ere ba omen da...

Bai hori esaten dute, baina niri ez zait rolo askorik entzutea tokatu. Nire arrebari bai, baina bera ere berrixiu ere bada eta...

Non ligatzen da gehio, barra atzean ala aurrean?

Ez dakit, baina atzean behintzat batez, eta aurrean ere kostata.

Eta piroporik entzuten al da?

(Gorrituta) bueeeno, bai nire ipurdiari buruzko batzuk entzun ditut, baina ez dakit orain esateko.

Lepo gainekeo ganbara asko nahastu al zaizu Ganbaran zaudenetik?

Nahastu ez, ate asko ireki dizkit, jende asko ezagutzeko aukera eman dit Ganbarak, Nahastu baino, lagundu egin dit.

Zein lanbide izan nahi zenuke?

Ba oraingoarekin gustora nago, baina inge- nitzat bukatzen dudanean saiatu nahi nuke horretan ere lana bilatzen.

Asteburuko planik onena?

Parranda, parranda eta parranda. Baina gauez bakarrik, egunez ahal bada lo.

Posible al da alkoholik gabeko parrandarik?

Alkohola ez da beharrezkoa parranda egiteko. Nik berezkoa dut animoa, barrutik ateratzen zait, eta uste dut gehiago aguantazen dela parrandan alkoholik gabe.

Zer hiru gauza eramango zenituzke irla batera?

Insulina behintzat bai, eta gero musika eta laguna, bakarra.

Nora joango zinake bihar bertan?

Seychelles irla.

Kantu bat?

(Ez du asko pentsatu behar) Peter Gabrielen "Mercy Street"

Pelikula bat?

Ez nizuke esango. Astean bitan igoal juten naiz, baina bat esateko ez dakit.

Zumaian ez beste non biziko zinake?

Ez dut uste hemen baino hobeto inon bizi daitekeenik.

agurrak

Aupa guapa!

Arrain asko dago itsasoan (nahiz eta sardin-zahar gehiegi dabilen inguruan).

"Tu me prometiste volver..."

Amatxok nola egiten du? Mmuuuun!! (pio, pio) zorionak beti (atzerape- narekin)

S²-rentzat:

pixkat retrasoakin baina zuetaz gogoratu gara. Egin beharko de- u beste patata afari bat zuen urteak ospatzeko. Zorionak eta muxu mini-tini-guini bat.

Klasiko bi $E^{20} \times M^2 = S^{50}$

Tejoi hiltzailea

Txakoli + marianito = lo eta kitto

Bombi taldea

- Zenbat balio du txurro dozenak? 1200

- Emaidazu dozena erditxo bat.

Peña Zalla

OHARRA: Zelaia itxita dagoenez eta hondartzan harri gehiegi dagoenez, BBV- ra joatea gomendatzen da. Maitasun kluba

ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta persianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60


Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpinteria metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA



ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatuz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



25 urtetik
gorako esperientzia

AUTOS ZUMAIA AUTO-KONPONKETAK

INSTALAZIO BERRIAK
ESTAZIOKO INDUSTRIALDEAN

Mekanika orokorra •
Direkzioaren lerrokatze elektronikoa •
ITV aurreko azterketa •
2. eskuko autoen erakusketa •

UROLA PLAZA 3-5 TEL. 943 86 14 85